



Hezkuntza

Hezkuntza-sistema aldatu egin da gauetik goizera, horretarako prest egon gabe. Orain, unea da hezkuntza pandemiaren unerik txarrenetan ezarritako metodologia berrietara egokitzeko.

- 23.** Urrutiko ikaskuntza- eta ebaluazio-metodologiak garatzea euskal hezkuntza publikoan, Berritzeguneetako lantaldeak indartuz, 2020ko ekitaldirako ezohiko aurrekontu-zuzkiduraren bidez.
- 24.** Irakasleak urrutiko irakaskuntzako teknologia berrien erabileran trebatzeko plan trinko bat garatzea, 2020-2021 ikasturtean prestakuntza-plan hori garatzea ahalbidetuko duten plantilla-errefortzuak kontratatuz.
- 25.** 2020-2021 ikasturtean tutoretza-baliabideak indartzea, konfinamenduak hurrengan eragindako inpaktu emozional eta psikosozialari erantzuteko, bai eta aldi horretan gerta daitezkeen haurren aurkako indarkeria-kasuak detektatzeko ere.
- 26.** Aparteko hezkuntza-baliabideen eta eskola indartzeko baliabideen programak (Bidelaguna programa) zabaltzea egoera ahulean dauden ikasleen ratio handienak dituzten ikastetxeetan, konfinamenduak eragindako ikaskuntza-arrakala murrizteko.
- 27.** Eskoletako eten digitalaren aurkako plana, baliabide gutxien dituzten ikasleek teleikaskuntzarako beharrezkoak diren baliabide informatikoak (ekipoak eta konexioak) maileguan izatea bertutuko duena, eta baita laguntza-plan espezifikoa ere.
- 28.** Aisialdirako eta hezkuntza-errefortzurako eskaintza zabaltzea datozen oporraldietan, maila sozioekonomiko baxuko familien doako sarbidea lehentsez.
- 29.** 0 eta 3 urte bitarteko tartean hezkuntza unibertsalizatzea eta haren doakotasuna osatzea sarbideko desberdintasunak gainditzeko tresna gisa, etapa horrek haurren garapen hezitzailean eta kognitiboan duen garrantzia kontuan hartuta.
- 30.** Nahitaezko hezkuntza-sistemako eta helduen eskola publikoetako hezkuntza-programetan Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (EPTS) sartzeari.